

300. alea - 2024ko azaroa
Debako herri aldizkaria

Zuhertza
www.deba.euskararekarta.com
euskara
elkartea

Berriketan



NEREA LOIOLA • Idazlea

**Literaturan
buru-belarri murgilduta,
afizioz eta ofizioz**

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan

943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

janire & maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behe - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa

Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

ARENA BAR

IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

mm

943 830 424 - 653 921 712

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 300

2024ko azaroa

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



4 EDITORIALA
'Berriketan'
herri aldizkariaren
300. zenbakia duzue
esku artean



19 ALBISTEAK
Zuri Goikoetxea
zinemagileak Zinebi
jaialdian estreinatu du
bere azken lana



23 ELKARRIKETA
Aurten hiru liburu
plazaratu dituen
Nerea Loiola idazle
debarrarekin solasean



26 ALBISTEAK
Bete-betea dator,
laugarren urtez
jarraian, Euskeraz
Bagera zikloa



29 ALBISTEAK
Omenaldia egin diote
Amagoia Arrietari
bere kirol ibilbidea
goraipatuz



32 AGENDA
Datozen asteotan
gingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatzza Euskara Elkartea
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatzza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatzza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/2009
ISSN: 21.71-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBATXEO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



300 Berriketan

EDITORIALA

2022an bete zituen 25 urte Zuhatza Euskara Elkarteak eta iaz bete zuen mende laurdena *Berriketan* herri komunikabideak. 1998ko abuztuan lehenbizikoz argitaratu zen aldizkariak 300. zenbakia plazaratu du orain; 300 ale, bai, zenbaki borobila.

Euskarazko komunikazio proiektu hau herritar, talde eta eragile askoren lankidetzari esker bakarrik da posible. Borondaterik onenaz aldizkarian parte hartzen eta kolaboratzen duten guztiek egiten dute *Berriketan*. Noizbait gutun bat argitaratzeko eskatzen digutenek, iritzien atal finkoetan idazten dutenek, argazkiak lagatzeko edota argazkietan agertzeko prest azaltzen direnek, beren lanen edo jardueren zabalkundea egiteko eskatuz aldizkarira jotzen dutenek, zutabegileen sarea koordinatzen dutenek, gaiak eta protagonistak proposatzen dituztenek, elkarrizketa proposamenei baiezkoa ematen dietenek, banaketa lanetan laguntzen digutenek, publizitate bila irteten direnek... Funtsean, azken urte luzeotan Ifar kalean aritzen den erredakziotik pasatzen zareten guzti-guztiok egiten duzue *Berriketan*. Eta, nola ez, herri komunikabideak 2022an estreinatu zuen atari digitala elikatzen duzuen guztiok ere bai.

Proiektua babesten duten herritarrek, elkarteko bazkideek, erakunde publikoek eta euskarazko publizitatea eraginkorra dela sinesten dutenek ere egiten dute *Berriketan*. Eta ezin aipatu gabe laga, noski, ezinbesteko irakurleak. Proiektu parte-hartzailea da gurea, eta idazten dutenak bezain garrantzitsuak dira komunikabidea (paperean nahiz Interneten) irakurtzen duten herritarrak.

300 aldiz sartu da aldizkaria Debako eta Itziarko bizilagunon (eta kanpoan bizi zareten bazkideon) etxeetara, herriko historia diren edo bihurtu diren herritarren eta gertakarien berri ematen. Eta hori denoi esker lortu dugu. Eskerrik asko, beraz, guztioi.

Pausoz pauso, alez ale... jarrai dezagun Berriketan!

Gutunak



Liburutegia denontzat izango da ala ez?

Bada dagoeneko urtebete Liburutegia Denontzat Taldea sortu genuenetik. Helburu dugu liburutegia denon eskura jartzea; haur, gazte, heldu eta adinekoen gune izatea, denona. Denontzat ordutegi bera, denontzat aukera berdinak, denontzat betebeharrak berdinak. Hori dugu helburu: elkarbizitza. Debako liburutegiko arautegiak berrikuntza behar duelako gaude hemen.

Liburuzainekin egon gara, udaletxean bildu gara, eta 500 sinadura lortu eta aurkeztu genituen. 3 eskaera egin ditugu:

- 1) 0 urtetik aurrerako umeei erabiltzaile izateko aukera izatea eta liburutegian egoteko aukera izatea.
- 2) Umeei beste erabiltzaileen ordutegi bera izatea.
- 3) Umeei eramateko kotxei dagokienez, malgutasuna izatea liburutegira sartzeko garaian.

Ez da asko eskatzen duguna, ez da zaila, ez du obrarik eskatzen, ezta diru inbertsiorik ere... borondatea da behar dena.

Bilera eskatu dugu udalarekin, jakiteko arautegia aldatuko duten edo ez, erantzun bat jaso nahi dugulako. Eta bai, badirudi abendua iritsi baino lehen bildu egingo garela. Espero dugu udalak bildu ditugun 500 sinadura horiek kontuan hartzea eta zentzuz jokatzea, Debako liburutegiaren arautegia aldatzeko eta garai berrietara egokitzeko borondatea eta ausardia erakutsiz. Kontatuko dizuegu.

Udalaren erabakia zein den jakin bitartean, liburutegia errespetuz, erosotasunez eta beste pertsona guztiak bezala erabiltzen jarraitzeko deialdia egiten dizuegu. Umeentzako gaur egun ezarrita dagoen ordutegitik kanpo bazoaz eta umeei joateagatik bertan ezin zarela egon esaten badizute, gustatuko litzaizuke jakitea. Beraz, horrelako egoera deserosoak suertatuz gero, liburutegiadenontzat@gmail.com helbidera idatz dezakezu edota gutariko bati kontu diezaiokezu. Liburutegia nahi dugu haurrentzat, eta haurrez betetako liburutegia herriarentzat.

Liburutegia Denontzat Taldea

Laguntzaile bila gabiltza



Abenduaren 24an, eguerdian, Olentzero eta Mari Domingi izango ditugu berriz ere bisitan herrian, eta haiei egunean bertan harrera egiteko eta urteroko ekimen herrikoia prestatzeko laguntzaileak behar ditugu.

Azaroan lehenengo batzarra egin ondoren, lantaldeak laster egingo du bigarren bilera bat, antolaketa lanei ekiteko. Taldea irekia da eta, hortaz, laguntzeko prest zaudeten herritar guztiak zaudete bertan parte hartzera gonbidatuta. Denok izango zarete ongi etorriak, bai norbanako eta bai talde gisa, eta benetan eskertuko genuke zuen parte-hartzea.

Hurrengo bileren deialdiak berriketan.eus atarian iragarriko ditugu. Bestalde, antolakuntza lanetan gabiltzan boluntarioen Whatsapp taldea ere badugu, eta nahi duenak taldera batzeko aukera dauka, labur.eus/debaolentzero estekaren bitartez.

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea



Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • www.taxideba.eus



1927ko udaberria

Hormigoi armatuaren iritsiera

Ez dirudien arren, 1927ko udaberrian egindako argazki hau dokumentu historikoa da. Bertan, hilabete batzuk geroago EBEO Ostolaza Fundazioaren Eskola-Liburutegia (gaur egungo Kultur Elkarte) izango zenaren zolarrian altzairuzko sarea jartzen diharduten langile batzuk ikus ditzakegu.

Eraikinaren egitura osoa hormigoi armatuz egin zuten eta berrikuntza handia izan zen garai hartan, Deban material horrekin egindako lehenengo eraikina izan baitzen. Manuel de Cardenas Pastor arkitekto ospetsuak diseinatutako eraikina denbora errekorrean altxatu zuten, sei hilabetean; alegia, obra 1927ko udaberrian hasi zen eta urtea amaitu aurretik bukatuta zegoen. Ikastetxeak 1928an ekin zion bere ibilbideari.

Hona hemen beste datu bitxi bat: bere egitura sendoa dela eta, eraikin honetako sotoak babesleku gisa erabili zituzten gerra zibilean.

Alex Turrillas Aranzeta



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
 KALITATEA
 Erroren Kopurua Nº 2 / 105 / 049
 NIVEL 2



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



LANDER ARANBERRI

Munstroak eta eroak

Ez du etenik. Astero, munstro edo ero berri bat agertzen zaigu. Trumpen mahaikide-festa dugu egunotan; aurrekoan, Errejonen pertsona-pertsonaia kontraesanen festa izan genuen; kilometro batzuk harantzago, Netanyahu azken irtenbidea aldarrikatetik gero eta hurbilago daukagu. Hori gutxi ez, eta eguraldia bera ere erotu ez da bada Mediterraneo aldean!

Munstro, ero. Halaxe izendatzen dugu hurkoa deshumanizatzen duena. Hitz zatar eta gordinez, kasik biraoka ere ekiteraino. Agian horregatik (eta ziurrenik) ez dugu inor ikusiko ideologia deshumanizatzaileen aldeko defentsa moralik egiten. Are gehiago, ukatu egingo du bera halakoa denik ere. Baina moralak moral, eta boz gora deshumanizazioa gaitzesgarri zaigun bitartean, Fronte Nazionalak Euskal Herrian hauteskundeak irabazten ditu. Donostian, kale gorrian egiten diren afari solidarioak turba bortitzen erasoekin zapuzten dira. Zer esanik ez, festa zein ospakizunen ostean, eraso sexualen kontagailua inoiz ez dela hutsean geratzen. Arzaoa segurtasuna omen da. Ez gaitezen harritu, bada, gure gizarte klasertainzalearen "babes" eskaerak une oro entzutean: seguratak, desokupak, poliziak, armadak. Kanporatze masiboak, heriotza-zigorak. Eta garbitu dezatela garbitu beharrekoa.

Telebista espainoleko La Revuelta saioan, aurkezleak gonbidatuari galdetzen dio ea matxistago edo arrazistago den. Kasualitatez edo, ez diot inori entzun "Bai, matxista/arrazista naiz" onartzen. Munstroen eta eroen gauza izango da.

**"Munstro, ero.
Halaxe izendatzen
dugu hurkoa
deshumanizatzen
duena. Hitz zatar
eta gordinez,
kasik biraoka ere
ekiteraino"**



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Podologia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista

Lersundi, 14
943 19 24 42
sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Har ditzagun kaleak

TERESA PRADERA • Itaia taldeko kidea

Bortxaketa bati buruzko albistea gaur, prostitutzera behartutako hainbat emakumeri buruzko berria atzo, eraildako emakume bat titularretan herenegun... Egunero aurkitzen ditugu emakumeen kontrako erasoen berriak, baina, ikusiaren ikusiaz, gero eta gutxiago erreparatzen diegu, gero eta toki txikiagoa hartzen dute hedabideetan, gero eta zarata gutxiago kaleetan. Guztiz normalizatuta dugu emakume langileok gure bizitzetan indarkeria matxista pairatzea.

Baina nola da hori posible Estatuan inoizko gobernurik progresistena daukagunean? Nola da posible Jaurlaritzak milioiak eta milioiak bideratzen baditu publizitate kanpainetara eta gazteak berdintasunean heztera? Hona hemen nire hipotesia: instituzioak ez dira gai indarkeria matxistaren arazoa benetan konpontzeko, baina benetan abilak dira "asko" egiten ari direla irudikatzen.

Horrek dakarrena da belaunaldi berriek (eta ez hain berriek) uste izatea berdintasuna lortu dela. Orduan, nola justifikatzen da oraindik ere erasoak egotea? Gizarteko sektore erreakzionarioenek aitzakia bikaina aurkitu dute emakumeenganako erasoetan haien ideia arrazistak indartzeko (atzerritarrek dira erasotzaileak), bai eta indar errepresibo gehiago behar direla justifikatzeko ere (polizia gehiago, arma gehiagorekin). Baina benetan salbu gaude poliziaren eskuetan, kontuan hartuta askotan haiek beraiek direla erasotzaileak? (Gogora dezagun udan izandako erasoaren %15 poliziek egin dituztela).

Panorama horrekin, ez da harriztekoa gizartea etsita egotea, ezin dela ezer egin pentsatzea. Baina ezin dugu etsipenean bizi. Itaiaiko kideok sinetsita gaude posible dela indarkeria matxista normalizatzen ez den mundu bat, are indarkeria matxistarik gabeko mundu bat. Eta mundu horren oinarriak gaurdanik eraiki behar ditugu. Nola?

1. Erasoak desnormalizatu behar ditugu. Egunero erasoak egotea, Euskal Herrian aurten bost emakume erail izana ez da normala, ez da onargarria. Ezin dugu beste alde batera begiratu, guri inoiz gertatuko ez zaigula pentsatuta.



"Instituzioak ez dira gai indarkeria matxistaren arazoa benetan konpontzeko, baina benetan abilak dira 'asko' egiten ari direla irudikatzen"

2. Emakumeon eta batez ere erasotuen babes antolatua behar dugu. Ezin gara politikarien erabakien zain gelditu. Instituzioetatik datozen neurriak estetikoak baino ez dira edo, gehienez ere, arazoa neurri oso mugatu batean arintzen dute. Guri dagokigu lehen lerroan jarri eta agente aktibo bilakatuta geure babes antolatua eraikitzea.

3. Erasotzaile guztien inpunitatearen aurka borrokatu behar dugu. Ezin diegu utzi gure gorputzetan jasaten dugun indarkeria beren ideia arrazistak hauspotzeko erabiltzen. Erasotzaileen adina, jatorria eta itxura askotarikoak dira; lanean, etxean, kalean erasotzen gaituzte.

Pauso irmoak

Premiazkoa da indarkeria matxista normalizatzeari utzi eta emakumeon zapalkuntza gainditzeko pauso irmoak ematen hastea, eta, bide horretan, indarkeria matxistaren aurka dagoen orori dei egiten diogu gure borrokara batzeko.

Egunero, baina bereziki azaroaren 25ean, indarkeria matxistaren aurrean, kaleak har ditzagun!



REXU ARAKISTAIN

Ezinezkoa edo ez

Gure arbasoek esaten zuten igandea izaten zela gaztetxoak elkartzeko eta beren jolasetan aritzeko eguna. Eta haietako bat hasi zen esaten: "Zuek badakizue nola egiten den gazta saguzarraren esnearekin?". Eta besteak erantzun zion: "Eta tortilla txorien garunekin?". Eta horrela jardun zuten, bukatu ezinda.

"Ba al dakizue gauean nola joan etxerako bidean, bakarrik, beldurrik gabe?", galdetu zuen orduan hirugarren batek. Ba omen zegoen gizon bat (*Listo* deitzen zioten) bi ahots egiten zituen, antza, bata gizonarena eta bestea emakumearena, jendeak horiek entzutean bi pertsona zirela pentsa zezan.

"Ba nik, beldurra uxatzeko, txistua isildu gabe jotzen dut etxerako bidean gauean", erantzun zuen laugarrenak. Benetan gogorra zen jai edo igande gauean kaleko mutil dotore bat auzoko neska gazte politen bila etortzea; "Horrek neskak lapurtu egingo dizkigu", esaten zuten. Bide estu batean laborantzako tresnak ipintzen zizkioten, gora begira, eta harrika ere egiten zioten, min emateko eta gehiago ez etortzeko; *neska-lapur* deitzen zioten.

Eskola txiki bat ere bazuten eta behin maisu berri bat etorri zela eta, denak pozik. Gizon dotorea zen, jantzi onekin eta oso garbi etortzen zen, gari koloreko oinetakoekin.

Listo izenekoa hasi da esaten: "Horrek ere ez du dena jakingo. Adibidez, ez du jakingo arre astoa-arre astoa *klha-klha-klha* (onomatopeia erabiliz) esan edo idazten". Eta hori entzutean maisua mutu geratu zen.

"Bide estu batean laborantzako tresnak ipintzen zizkioten, gora begira, eta harrika ere egiten zioten, min emateko eta gehiago ez etortzeko"

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - beheia | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
eskolanda

"maite ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 53 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com



marruecos
viajes y tours

Neurrira egindako
bidaia Marokora
607 76 11 46
www.viajesytoursmarruecos.com

Liburu artean

ESTIBALIZ BELTRAN DE HEREDIA • Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna



Udazkena, larrazkena edo udagoiena uzta jasotzeko urtaroa da eta liburutegian ere liburu sorta ederra jaso dugu. Hona hemen azken hilabeteotan euskaraz argitaratu diren hainbat liburu, haur, gazte zein helduentzat. Liburu sorta honetan aurkituko dituzue Nerea Loiolak idatzi dituen azken liburuak, baita Maddi Astigarragak argitaratutakoa ere.

Bestalde, gogoratu liburuez gain, aldizkariak, diskoak eta filmak ere aurkituko dituzuela gure katalogoan. Hauze da katalogoan sartzeko webgunea: www.liburubila.euskadi.eus.

Haurrak -Gazteak



'Bai, umetxo maitagarria'
Alexandra Garibai
(Ibaizabal) / 0-4 urte



'Haurtxoak barreka eta kukuka'
(Caspar Addyman)
Ibaizabal / 0-4 urte



'Mitxi udazkenean'
(Anita Bijsterboch)
Ttartalo / + 5 urte



'Baso ilun eta sakonean'
(Delphine Bournay)
Txalaparta / + 5 urte



'Artista egingo zaituen liburua'
(Ruth Millington)
Ttartalo / 6-8 urte



'Urtaroak'
(Isabelle Echeverria)
Urruñako Antzerki
Eskola / 6-8 urte



'Miraren mendekua'
(Nerea Loiola)
Erein / 8-10 urte



'Koloretako intsektuak'
(Maddi Astigarraga)
Sua / 8-12 urte



'72 egun eta soineko bat'
(Pep Molist). A Fin de
Cuentos / 8-12 urte



'Arrisku Handiko Trena'
(Nerea Loiola)
Erein / 10-12 urte



'Gazte naturalisten koaderno'
(Jonathan Rubines)
Sua / + 12 urte




'Giza eskubideak'
(Yayo Herrero)
Litera / + 12 urte

Helduak



'Hetero'
(Uxue Alberdi)
Susa



'Zebrek eta bideak'
(Nerea Loiola)
Erein




'Etxe bat norberarena'
(Yolanda Arrieta) Erein



'MurMur'
(Ane Labaka) Erein /
Markina-Xemeingo Udala



'Euri gorriaren azpian'
(Asier Serrano) Erein



'Mo. Behi euskaldun baten memoriak'
(Pello Varela) Pamiela



'Egun bat beti berdin tabernan'
(Asier Iturralde) Harriet



'Gurpilak'
(Eztizen Artola)
Txalaparta



'Berbelitzen hiztegia'
(Anjel Lertxundi)
Alberdania



'Uztapide eta Xalbador: bi adiskide mugaz gaindi'
(Pako Aristi) Erein



'Gazako egunerokoa'
(Atef Abu Saif)
Berria / Elkar / Jakin



'Haziak. Zergatik eta nola egin zureak'
(Miguel Arribas) Argia

ek!

Eibarko...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Lurrari lotuak

MIRIAN ARRIZABALAGA ETA IÑAKI ANSOLA BARATZEZAINA ETA ARTZAINA

Elgoibarko Mausitxa baserrian elkartu ditugu Mirian Arrizabalaga eta Iñaki Ansola baserriko jardunaz eta lehen sektoreaz berba egiteko. Bere garaian, biek ala biek erabaki zuten baserriko jardunari segida ematea eta halaxe bizi dira orain, lurrari eta eguzkiari lotuak.

Testua: Egoitz Unamuno.

Argazkiak: Gurutze Ariznabarreta.

Udazkena da, neguaren ataria. Zein lanetan diharduzue garai honetan?
Mirian Arrizabalaga: Esango nuke kontrako bidean gaudela (barreak). Ni, berez, denboraldi gogorrena bukatzen. Udako landaketa denak garbituta, negukoak landatuta eta orain ongarrri berdeekin hastekotan.

Iñaki Ansola: Gu, guztiz kontrara. Guretzat ikasturte hasiera modukoa da. Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusio garai bat. Hasten dira arkumeak jaiotzen eta ziklo dena jartzen da martxan. Ardiez gain badauzkagu behi batzuk ere eta laster hasiko gara barrura sartzen. Horrek lana gehitzen du.

Nola antolatzen duzue eguna?

M.A.: Azaroan gaude, eguna dezente moztu du eta lurrera joateko argitasuna behar dut. Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako. Beraz, garaiotan pixkat berandutxoago mugitzen gara. Egunean banaketa egitea tokatzen bada, uzta biltzen aritzen naiz, eta eguraldiak uzten baldin badu, azkenengo ereinketak egiten.

I.A.: Orduan oporrak hartzeko moduan orain, ezta?

M.A.: Hiru egun hartu ditut, oraingoz. (Barreak)

I.A.: Ni egun batean jaikitzen naiz zazpiretan eta hurrengoan goizeko bostetan. Ez dut izaten ordutegi finkorik jaikitzeko eta ezta oheratzeko ere. Goizean jaio diren arkumeak organizatzen ditugu. Arkumeren bat goseak baldin badago, esnea eman... Errapeak zaindu eta jaten eman ardiei... Kanpora atera... Oherako ere ez daukagu ordurik. Atzo gaueko hamarretarako ohean nengoan, baina goizeko ordu-



“Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako”

“Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da”

“Lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan”

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA ITZIAR, 1983
Doniene Haundi baserrian jaioa. Ikasketaz ingeniari teknikoa da, eta 2009an ekin zion profesionalki baratzagintza ekologikoari. Duela hamabi urtetik, Biolurreko lehendakaria da eta Amillubi proiektuko zuzendaritzako kidea ere bada.



“Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusioz betetako garai bat da”

“Erosten duen horri erakutsi behar diogu lurrari lotutako abeltzantza egiten dugula”

“Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun”

IÑAKI ANSOLA SALEGI ELGOIBAR, 1984

Mausitxa baserrian jaioa. Goi mailako ziklo bat ikasi zuen Fraisoro nekazal eskolan. 2004an ekin zion artzaintzan eta gaztagintzan profesionalki lan egiteari eta harrezkero bertan dihardu.

bietarako kortan ardiekin. Gogorra izaten da, baina niretzat ilusioz betetako garai bat da. Lan askokoa, baina dotorea.

Gainerakoan, nolakoa ari da izaten 2024. urtea?

M.A.: Baratzerako oso txarra! Otsailean hogeigabatean egon ginen hamabost bat egunetan eta aurreratu zen behar ez zena. Maiatza oso hotza izan zen. Gogoratzen naiz Itziarren bost graduko goizak izan genituela. Landaketekin asmatu ezinda ibili ginen. Uda ere antzera joan da: argitasun gutxi, euri asko, lurra goxatu ezinda, landareak sufritzen... Eta uzta eskasak. Gainera, kostan nabarmenagoa izan da, euri gehiago izan dugulako. Beste urteekin alderatuta, eskasagoa izan da. Ez bakarrik Euskal Herrian. Aurten justu Britainiako baratzezain batzuekin ere harremana egin dut eta eurek ere nahiko urte eskasa izan dute. Orain negutegian ahalik eta gehien aprobeztatuko dugu espazioa, negua ahalik eta ondoen pasatu eta datorren urtea hobea izango den itxaropenarekin.

I.A.: Esaten dute feria txarrik ez dela izaten denentzako eta nik firmatuko nuke aurtengo moduko urte bat (barreak). Aurten eguzki oso gutxi izan da eta eduki dugu belarra ikaragarri. Kanpoak oso-oso berde egon dira, baina belar hori oso biguna izan da eta ardiek eta behiek beherakoa izan dute askotan. Baina egon da bolumena. Alde horretatik begiratu, guretzako ez da izan hain urte txarra. Iazkoa okerragoa izan zen. Udaberria oso lehorra izan zen, eta ez genuen izan janik. Aurten, soberan. Makala, baina soberan.

Igartzen da azkenengo urteetan klima aldaketa. Ikusten ditugu neguak askoz ere suabeagoak direla. Urtarrilean, hogeigabate gradu eta arbolak loretan! Aurtengo uda ere oso atipikoa izan da. Badago zerbatz atzetik. Animalietan ere igartzen da. Aztoramen puntu hori... Hor badago aldaketaren bat.

Ofizioa beharko da horri aurre egiteko. Zuek non ikasi duzue ofizioa?

M.A.: Nik esango nuke ia dena etxean ikasi dudala, nahiz eta ez izan ekologikoan, lurrari lotutako ekoi-zpena egin izan delako etxean. Horrez gain, lurra hobeto zaintzeko formazio laburrak egin izan ditugu Biolur elkartearen bitartez, Fraisoron, baina oinarria etxean jaso dut.

I.A.: Gu biok baserrian jaiotakoak gara eta ume-umetatik ikusi dugu gure aurrekoek zelan egiten zuten lan. Ondorioz, ohitura batzuk hartzen joan gara umetatik. Niri tokatu izan zait gurasoekin lan egitea eta ohitu naiz euren moduetara. Ez da erraza izaten aitari edo amari esatea 'hau horrela egin behar dugu'. Aldaketa hori nahiko konplikatu izaten da. Nahikoa

“Amillubik ilusioa piztu du”

"Baratzegintza ekologikoaren arloan Amillubi proiektua nobedade garrantzitsua izan da.

Amillubi Zestoako Iraetako erriberan dagoen baserri bat da. Lurrak erosteko aukera sortu zen eta ia diru bilketa bat egin genuen lur horiek erosteko, batez ere, ikusten genuelako Biolurrek dituen bi helburuei erantzuten ziela: alde batetik, erreleboaren gaiari, lehen sektore osoan daukagun arazo handi bati, eta bestetik, lurra bilatzeari. Aliatu dezente lortu genituen eta bailarako udalen laguntzarekin bi pertsona jardun erdiz liberatzea lortu genuen. Orain, abenduaren 1ean, beteko da urtebete proiektua plazaratu genduela. Bide onean goaz. Oraindik ez daukagu lurrak erosteko diru dena bilduta, baina gehiena bai, eta lurra erabiltzen hasita gaude: udan baratzezainok porrua egin dugu, okinek garia egin nahi dute, babarruna ere landatu genuen, baina eguraldiagatik ez da ondo joan... Asmoa da zati batean proiektu finko bat garatzea, baina zehazteko dago eraikina eta lurrak nola erabiliko diren. Normalean lehen sektoretik albiste grisak datoz eta ikusi dugu proiektu honek ilusioa piztu duela. Baditu aukerak zabaltzeko eta ilusio horri helduta goaz aurrera".

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA

diskusio izaten dira. Nik ere oro har etxean ikasi dut baina gero ikasketak egin nituen Fraisoron, hainbat ikastaro. Ondo etortzen da ikustea besteek zer egiten duten, gutxienez jakiteko zer ez den egin behar. Munduari ireki eta ikusi zer dagoen. Makinaria aldetik, informatika aldetik, eguneratu egin gara gu ere.

Zer egiten zaitzue zailena?

M.A.: Lagun batek esaten zidan: “Ez dago landaketa zailik!”. “Zaila dena da denak batera egitea”, esan nion. Batzuetan frustrantea egiten da badakigulako nola egin eta ez garelako iristen egitera. Argi daukagu eguraldiak asko eragiten digula baina horren aurka egiterik ez daukagula. Lagatzen duenean, egin dezakegu, eta ez duenean lagatzen, ez.

Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da eta horretan jartzea asko kostatzen zait. Nik erabaki dut nire lana izatea lurrari lotua eta alde txarrak onartzen ditut, baina gero inposatzen dizkigute kanpotik beste gauza pila



bat bai edo bai ikasi behar ditugunak, eta ikusten duguna da beste ofizio batzuetan ez dituztela halako lan desberdinak egin beharrik. Esango nuke autonomo lan egiten dutenei lotuta dihoan zerbait dela.

I.A.: Nik okerren daroatena da nire eskuetatik kanpo gelditzen den hori. Adibidez, gaur hamabost egun, Gipuzkoan mingain urdin positibo bat antzeman zuten, eta orain, behartzen gaituzte ardi denak bakunatzera. Gure kasuan, pasa den astelehenean bakunatu genituen eta izan genituen hainbat abortu, hil zitzaigun ardi bat... Badakigu zein diren bakunaren ondorioak, baina ez dakigu gaitzak zer sortzen duen. Gaitza ez dugu ezagutzen. Horrelako beste hainbat gauza daude goitiki agintzen dizkigutenak eta behartuta gaudenak betetzera. Beste adibide bat da Ticket Bai. Nire amak laga egin ditu lehen egiten zituen hainbat lan. Beste lan bat eta beste kostu bat gehiago. Horrek eskema denak apurtzen dizkigu.

Bestalde, aurreko urtean, oso gaizki ibili ginen txakurren gaiarekin. Gero eta txakur gehiago dago



eta nik ondo ikusten dut, baina tentuz jokatu behar da. Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun. Sekulako inpotentzia sentitzen dugu. Deitu Udaltzaingora, deitu ertzainei, jarri salaketa eta erantzuten digute ardiak hobeto zaintzeko.

Badakigu gure eguneroko lana zein den, baina kanpotik datozen lanek, burokratikoek, dela mingain urdinaren gaiak, txakurrenak... Horiek sortzen didate niri kezka handiena.

Eta alderantziz, zer da gehien estimatzen duzuen?

M.A.: Berez uza jasotzeak izan beharko luke, baina normalean bilketa ez da nire lan gogokoena izaten, aurten uzta hobeak gustura bilduko nituzkeen arren. Egunerokoan lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan: mugikorra alde batera laga, landareak nola dauden begira jarri... Bakardade momentu horiek.

I.A.: Bai, gure ofizioan momentu asko pasatzen ditugu bakarrik. Niri animalia artean ibiltzea asko gustatzen zait eta horrek asko betetzen nau. Arku-meak jaiotzea... Azkenengo urteetan, zortez, nahiko

ondo joan zaigu txapelketetan, eta jendeak zoriontzen gaituenean, pentsatzen dugu: “Zeozero ondo egiten dihardugu”. Eskerrak!

Ondo egiteari eta kalitateari begira, zer da zuek bereziki zaintzen duzuen?

M.A.: Gure oinarria lurra zaintzea eta hobetzea da, eta gero, jatekoaren zaporea zaintzea eta jaten duguna garaikoa izatea. Haziak eta landareak lortzeko, berriz, gertuko sarea baliatzen dugu.

I.A.: Gu ez gara gai Gaztelako jendearekin bolumentean lehiatzeko eta, beraz, egin behar duguna da merkatuan bereiztu eta erosten duen horri erakutsi lurrari lotutako nekazaritza edo abeltzantza egiten dugula. Nire ustez, jende batek gero eta gehiago begiratzen dio erosten duen produktuari eta horrek ingurumenean duen eraginari.

M.A.: Nik ez dakit. Batzuetan iruditzen zait desinformazio handia dagoela, eta jendeak, amets batean bezala, uste duela edozein saltokitan topatzen dituen barazki freskoak oso kilometro gutxira ekoiztu direla, baina ez. Esango nuke jende askok ez duela pentsatu ere egiten, batez ere, barazkiei begira. Ez



dute usaintzen elikagaien industria nondik nora doan.

I.A.: Pentsatu behar dugu jaten dugunaren %15-25 bitartean ekoizten dugula hemen. Gainerakoa kanpotik dator. Eta etorri beharrean dago, bertan gero eta gutxiago sortzen dugulako.

M.A.: Hogeita bost esan duzu, baina ez dakit inork ongi kalkulatu duen, nik %4 ere entzun izan baitut.

I.A.: Jakina, ni ari nintzen haragi sektoreaz...

Zuek nola saltzen duzue? Zuzenean ala zeharkako bideak erabilia?

M.A.: Guk hiru bide ditugu. Bata, merkatua, Deban. Normalean, astean bitan joaten gara. Kontsumo taldeak ere baditugu, taldetxo bat Deban eta beste bat Eibarren, eta denda txikietan ere saltzen dugu. Herriko bi dendatan eta jatetxeren batean ere bai. Azoketara joateari utzi egin genion. Lehen igual bazen urteko uzta saltzeko leku bat, baina orain gehiago da eskaparatismoa eta guri lan handia eskatzen digu. Osteko juerga izaten da baloratuena.

I.A.: Bai, askotan feriak hala izaten dira. Jai baten parte izaten gara gu ere. Gure kasuan, azokak ematen digu aukera bezeroei produktua aurkezteko eta azaltzeko. Gainerakoan, guk saltzen dugu denda txikietan. Ehun puntutan saltzen dute gure gazta. Denda handiekin ere egiten dugu lan pixka bat,

Eroskirekin eta BMrekin. %85 saltzen dugu Gipuzkoan eta Bizkaian eta Espainian ere saltzen dugu zeozer. Etxetik bertatik ere saltzen dugu zerbait eta gero feria konkretu batzuetan: Elgoibarren abuztuan, Idiazabalen eta Mendaron maiatzean... Gehien-gehien, dendetan, baina.

Begia Debabarrenean jarrita, zelan ikusten duzue lehen sektorea bailaran?

I.A.: Ni hasi nintzenetik, uste dut joera beti izan dela negatiboa. Esango nuke gurasoen partetik jaso dugun mezua beti izan dela joan baserritik, ikasi edo hasi tailerrean lanean. Tendentzia horrek jarraitzen du gaurdaino. Sumatzen da jende gazte bat ekiteko ilusioz, baina hasierak oso zailak dira. Lurrarekin arazo handia dago, sekulako prezioa ezartzen diogulako. Elgoibarren ez da jenderik gelditzen lehen sektorean.

M.A.: Nik batzuetan esaten dut Iparraldera joatea mozkorraldi moduko bat dela, han laborari eta abeltzainek harro esaten dutelako beraien bizibidea zein den. Soldata ez da iristen funtzionario batenera, baina ez daude hain urrun gizarteko batezbestekotik. Beste egoera bat da.

I.A.: Nire ustez badago alde handi bat. Hemen gaztandegi bati eskatzen zaio Garcia Vaqueroren adinako azpiegiturak izatea. Ostera, joaten zara Iparral-



dera eta ikusten duzu artzai bat gazta egiten, txukun, txabolatxo batean eta gastu ekonomiko oso txiki batekin; berak saltzeko baimena dauka eta guk ez. Esan behar da baita ere gure aldean askoz ere gehiago saiutzen direla borrokatzen han. Gu beti banatzen gara, eta bakoitzak bere gerra egiten du. Frantziako estatuarekin konparatuta, esango nuke oso atzera gaudela.

Instituzioei zer eskatuko zeniekete?

I.A.: Entzutea eta gure iritzia kontuan izatea, iristen direlako hainbat gai eta beti delako Europak agindu duela edo Ministerioak... Beti da goikoren batek agindu duela eta bai edo bai bete behar dugula; guk esaten dugunak ez du ezertarako balio.

M.A.: Nekazaritza ekologikoaren kasuan, existitzen garela kontuan hartzea. Oso eremu eta zenbaki txikiak maneiatzen ditugunez, ez gaituzte kontuan hartzen. Inbertsio handietarako tendentzia ere da eta

“Azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu”

Gaztagintzan markek garrantzi berezia dute, ezta?

"Idiazabalen barruan ehun eta zazpi ekoizle gaude. Gehiengo handi bat izendapen horren barruan gaude. Hor bakoitzaren markak badu bere garrantzia. Guri azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu, eta horregatik, jende batek Idiazabal gazta bilatzen du, baina beste jende batek bilatzen du Mausitxa. Horrek aukera bat ematen du merkatuan posizionatzeko. Orokorrean, nahiko ongi ari gara saltzen. Iaz Idiazabal sor-marka gaztarik gabe geratu zen eta aurten ere martxa berdinean doa.

Orain jatorri izendapenaren barruan daukagu Europatik datorren lege bat. Idiazabal gaztak izan behar du Gipuzkoa, Bizkaia, Araba edo Nafarroan egina, ardi latxaren esnearekin egina eta gutxienez izan behar du bi hilabeteko ontze prozesua. Orain, horrez gain, ardi horrek jaten duenak ere lurralde horretakoa izan behar du. Denok ez dugu berdina ikusten. Artzain batzuek jo dute ekoizpen intentsibora, bolumen handiagoa ekoiztera eta ardientzako erosten duten ia jateko dena kanpotik ekartzen dute. Dira ardi batzuk ia eguzkirik ikusten ez dutenak, urteko zatirik handiena ikuilu barruan ematen dutelako. Gureak urtean zortzi hilabetez kanpoko belar hutsarekin elikatzen dira. Orain, gehieneko kopuru batzuk ezarri nahi dituzte, eta eztabaida sortu da geure artean. Ez dakit zertan amaituko den".

IÑAKI ANSOLA SALEGI



zentralizatzea ere bai. Ez dute baserrien galera gelditu, joera egon delako pentsatzea zenbat eta gutxiago eta handiagoak egon, hobe zela. Berez, tendentziak kontrakoak izan beharko luke: izan behar gara asko, eremu txikiekin edo taldetan batuta. Bakardadea bilatua bada, ederra da, baina beste aukerarik ez daukazunean, ez da hain ona. Horregatik ari dira sortzen ekoizle eta herritarren arteko formulak.

Nola ikusten duzue jarraipena epe ertain edo luzera?

I.A.: Ni Diego Simeone modukoa naiz: partidaz partida. (Barreak)

M.A.: Aurtengo urtea oso gogorra egin zait, eta kanpoan ordu batzuk lan egiten hasi beharko nintzela pentsatzera ere iritsi naiz. Nekazaritza ekologikoan aitzindari izan zen Lapatza baserrikoak esan zidan: “Eutsi egin behar da!”.

Negutegi batzuk gehiago behar ditut. Gaur egun, azaleraren %10a da negutegia. Orokorrean gutxi da eta, aukera izanez gero, beste negutegi bat jarriko nuke, eguraldi txarra egiten duen egunetan ere lan egin ahal izateko.

I.A.: Nik orain daukadanari eustearekin nahikoa lan izango dut. Gurasoak adinean aurrera doaz eta euren eskulana egiteko jendea topatzea ikaragarri kostatzen da. Gero daude hurrengo belaunaldikoak; ia horiek zer egiten duten. Ni, etxe honetan, zortzigarren

belaunaldikoa naiz eta azkena izateak ere pena emango lidake, itzelezko pena. Ni ez noa seme-alabei presiorik sartzera, baina ia eurek zer erabakitzen duten. Gainerakoan, lehengo horretan jarraitzea izango litzateke helburu printzipala.

Laburrean

Artzain ona izateko garrantzitsuenak?

I.A.: Ardi onak izatea (Barreak).

Baratzezain ona izateko?

M.A.: Arreta handia jartzea.

Miresten duzue...

I.A.: Gure ardi arraza: Latxa.

M.A.: Gipuzkoan ekologikoan hasi zirenak.

Gazta mota bat?

I.A.: Gazta urdina.

Barazki bat?

M.A.: Aza.

Azoka bat?

I.A.: Elgoibarko Gabon Zaharretakoa.

M.A.: Azpeitikoa.

Erreminta bat?

I.A.: Artzain-makila.

M.A.: Labana.

Maddi Astigarragak 'Koloretako intsektuak' liburua aurkeztuko du



Maddi Astigarraga ilustratzaile zientifikoak maiatzean kaleratutako *Koloretako intsektuak* (Sua Edizioak) bere lehen liburua aurkeztuko du Kultur Elkarteko liburutegian. Azaroaren 27an izango da ekitaldia, 17:00etan, eta sei urtetik gorakoei zuzenduta egongo da.

Astigarragak iragarri duenez, dena den, ez da ohiko liburu aurkezpen bat izango. "Jolas gisa planteatutako tailer bat izango da. Argitalpenaren oinarria bera marrazketaren bidez ikastea izanik, zentzu handiagoa ikusten

diotekintzara pasa eta hurbilduko direnekin batera marrazten aritzeari liburuan proposatzen diren jarduera horiek azaltzeari baino".

Egileak laburbildutakoaren arabera, bere liburuak helburu bikoitza du. "Inguruan dauzkagun intsektu polinizatzaileak hobeto ezagutzea da helburu nagusia, eta gai horretan sakontzeko marrazketa erabili dut. Beraz, liburuak marrazketan murgiltzeko gonbitea ere egiten die irakurleei".

Ilustratzaile debarra pozik dago bere liburuaren argitalpenarekin eta lana herrian aurkezteak "ilusio berezia" egiten diola ere aitortu du. "Pozik nago emaitzarekin. Liburuaren abiapuntua Ilustrazio Zientifikoko master amaierako lana izan zen, eta hiru urte beranduago emaitza Deban aurkeztu ahal izateak ilusio handia egiten dit".

Liburuaren abenduaren 5etik 8ra egingo den 59. Durangoko Azokako nobedadeen artean eskuratu ahal izango da, Sua Edizioak argitaletxearen erakusmahaietan.

Kalean da 'Amaineman' Josune Arakistain Süne-ren bakarkako lehen diskoa

Süne izeneko bakarkako proiektuari ekin ondoren, Josune Arakistainek bere lehenengo diskoa kaleratu berri du. Bi urte eta erdiko lanaren emaitza da *Amaineman* eta, azaldu duenez, Euskal Herria eta Madril artean sortu du, Jimbo Paez ekoizlearekin elkarlanean.

Musikari lasturtarrak naturalizat jotzen dituen bi mundu —elektro-nika eta trikitixa— uztartu ditu proiektuan. *Amaineman* 11 abestiz osatuta dago, eta tartean daude azken hilabeteetan single gisa kaleratutako lanak ere. Bakarka egindakoak dira sei kanta, baina gainontzekoetan Antia Muiño galziarraren eta Greta Ch'aska italiarraren, DJ Rikkiren, Moonshine Wagonen eta Ventiuño taldeen kolaborazioa izan du, baita Huntzako lagunena ere.

Bildumako 11 abestiak plataforma digitalen bidez entzungai daude dagoeneko, baina musikariak sorpresa bat gordu du diskoa erosten dutenentzat, hamabigarren kanta bat gehitu baitu formatu analogikoan.

Zuri Goikoetxea zinemagileak Zinebi jaialdian estreinatu du bere azken filma



Zuri Goikoetxea zinemagile debarrek Larraitz Zuazorekin eta Ainhoa Andrakarekin elkarlanean zuzendu duen *Itoiz. Udako sesioak* dokumentala estreinatu du.

Itoiz musika taldeari buruzko ikus-entzunezkoa zazpi urteko lanaren emaitza da, eta azaroaren 11n ikusi ahal izan zen primizian, Zinebi Dokumentalen eta Film Laburren

Bilboko Nazioarteko Jaialdiaren Sail Ofizialaren baitan. Zinebik, gainera, estreinaldia Xixongo FICXeko Nazioarteko Zinema Jaialdiarekin partekatu zuen.

Doxa ekoiztetxeak ondutako lanak 100 minutuko iraupena du eta ziuurren 2025eko urtarrilaren bukaeran iritsiko da areto komertzialetara. Juan Carlos Perez protagonista dela, musikariak 1978tik 1987ra Indar Trabes taldetik Itoizeraino egin zuten bidaia errepasatzen du, fikziozko pasarteak tartekatuz.

Harrera beroa egin diote Arimen Gauari

"Harrera beroa izan du elkarlanean, herrian eta herriarentzat antolatu dugun egitarau zabalak. Herritar ugari parte hartu dute egitarau osatu duten jarduera ezberdinetan, parte-hartzaile ugari batu zitzaizkigun herrian zehar egin genuen ibilbidean eta gu ikustera hurbildu ziren ikusleak ere ez ziren gutxi izan. Pozik gaude egin diguzuen harrerarekin, egindako lanak bere fruituak eman dizkigu". Hitz horiekin laburbildu du Arimen Gaueko Talde Eragileak aurten Deban lehen aldiz antolatu den ospakizunak eman duena. Urriaren 13an hasi eta azaroaren 4an bukatu ziren jarduerak eta esker oneko hitzak dituzte "hau guztia posible izan dadin bidelagun izan ditugun guztientzat. Eskerrik asko eta datorren urtera arte!".



Laburpen bideoa
eta argazkiak
berriketan.eus atarian



Jendetza Itziarko Perian, beste behin ere

Eguraldi ona lagun, milaka lagun gerturatu ziren azaroaren 1ean Itziarko industrialdean egin zen feriara. 09:00etan ireki zituen atea Itziarko Peria Elkarateak eta Itziarko Auzo Udalak antolatutako hitzorduak eta ordurako jende asko zebilela nabarmendu dute antolatzaileek. "Normalean, bisitarien kopurua eguerdi aldera handitzen da, baina aurten beteta zegoen eremua goizeko lehen orduetan; egia esan, eragina izan du feria (eta jaieguna) asteburuaren atarian ospatu izanak". Pozik azaldu dira herritarren erantzunarekin. "Egun borobila izan zen. Eskerrik asko postuak jarri zenituzten guztioi, baita ekimena posible egin zenuten boluntarioei ere. Eta, noski, mila esker Itziarrera hurbildu zineten guztioi, milaka izan zineten".



Argazki gehiago
berriketan.eus atarian



AITE ITZIARKO AUZO UDALA



Atzera begira, aurrera egiteko

Goazek 50 urte bete ditu eta urtemuga borobila ospatzeko jarduera ugari antolatu ditu antzerki taldeak azaroan. Besteak beste, erakusketa jarri dute herriko denda, taberna eta saltokietan, 50 urteotako ibilbidearen errepaso gisa; bertan, antzezlanen kartelak, jantziak, argazki zaharrak... bildu dituzte. Bestalde, Kultur Elkartearen hainbat obra proiektatu dituzte, baita solasaldiak egin ere, eta urtemugaren harira ondu duten *50 urte... eta baGOAZ* dokumentalaren estreinaldiak harrera ona izan duela nabarmendu dute. Urrezko ezteien ospakizunei amaiera emateko, azaroaren 16an antzerki poteoa egin zuten eguerdian eta, ondoren, bazkaria Ozio Biden; 70 bat Goaz-kide bildu ziren mahaiaren bueltan.



Argazki gehiago
berriketan.eus atarian



“Kontua da gure ogibidean ez dagoela ongi artikulatuta beste ogibideetan naturaltzat jotzen dena”

NEREA LOIOLA PIKAZA • Idazlea



Literaturgintzan 2018an murgildu zen Nerea Loiola (Deba, 1985), *Harri bat poltsikoan* ipuina kaleratuta. Eta, ordutik, haurrentzako ez ezik, gazteentzako eta helduentzako ere hainbat liburu idatzi ditu. Erein argitaletxearekin plazaratutako hiru lan berri dakartza aurrean besapean hartuta, eta horietan berriena Deban aurkeztu du.

Matematika irakaslea zen, baina duela bi urte lanpostua uztea erabaki zuenetik, sorkuntzari emana bizi da debarra. Zarautzen bizi da eta gaur egun idazte du ogibide; horretan aritzen da buru-belarri. Denbora gutxian, *Zebrak eta bideak* helduentzako narrazio liburua eta gazteentzako *AHT - Arrisku Handiko Trena* eta haurrentzako *Miraren mendekua* eskapu liburuak plazaratu ditu. Azken lanei buruz eta beste hainbat kontuz galdezka joan zaio *Berriketan*.

Duela hiru urte 'Epizentroa' narrazio lana idatzi ondoren, helduentzako bigarren lan batekin zatoz oraingoan. Zer nolako harrera ari da izaten 'Zebrak eta bideak'?

Liburua oraintxe argitaratu da, eta oraindik ezin diot galdera horri erantzun, baina irakurleen iritziak jasotzeko irrikan nago. Egia da, hala ere, idazketa prozesuan gertuko zenbait irakurlearen iritziak jaso ditudala eta sentsazio onak sortu dizkidatela. Gainera, urrian egin zen Booktegi Jaialdian *Ardi galduak* ipuina aurkezteko eta hari buruz beste idazle batzuekin mahai-inguru batean jarduteko aukera izan nuen, eta han jasotakoekin ere oso pozik gelditu nintzen.

Sei ipuinez osatu duzu bilduma. Motzean azalduta, zer kontatzen du?

Liburuan sei istorio oso desberdin aurkituko ditu





“Kontua da azken hiru proiektu horien bukaerak elkartu egin direla, eta badirudi aurten sekulako produkzioa izan dudala”

“Nire asmoa da Eskaputxiki bildumako bigarren liburuarekin jartzea eta eleberri bat izan daitekeenerako apunteak hartzea”

irakurleak. Ipuin guztietako protagonistak emakumeak dira eta guztietan atmosfera edo giro kritiko bat dago, baina, esan bezala, ipuinak autonomoak dira; ez dago denak elkartzen dituen hari narratiborik. Luzera, egitura eta ahots desberdinak atera zaizkit: drama, eta umorea, animaliak pertsoneri ispilu lanak egiten... Nahi duenak ipuinaren atzeko azalean aurkituko du istorio bakoitza esaldi batean laburbilduta.

Raul Guerra Garrido bekaren fruitu da lana. Nolako izan da liburua ontzeko prozesua?

2021eko udazkenean hasi nintzen ipuinok idazten, eta bekaren deialdia atera zenerako lan pixka bat aurreratua nuen. Nire proiektua bekaren eskakizunekin bat zetorrela ikusi nuen, eta aurkeztu egin nintzen. Eta zer, eta eman egin zidaten! Orduan hasi zen atzerako kontaketa: urtebete nuen liburua idatzi eta argitaratzeko... Egia esan, horrek halako presio bat sortzen du, ez dakidana ona edo txarra den, baina hor dago, eta egin egin behar da. Eskerrak lanak aurreratuta nituen!

Beka irabazi zenuenean nabarmendu zenuen euskarazko kultur sorkuntza beharrezkoa dela eta instituzioen babesa ezinbestekoa.

Tamalez, gure lana baldintza duin samarretan egin ahal izateko, finantziazio bila ibili behar izaten dugu

sortzaileok; eta, gero, beka bat ematen badigute, jendeak uste du loteria tokatu zaigula! Kontua da gure ogibidean ez dagoela ongi artikulatuta beste ogibideetan naturaltzat jotzen dena. Intelektualitateari edo gauza ukiezinei buruz ari garenean, gainetik kendu ezin ditugun konbentzio zahar batzuk daude. Nahiz eta halako bekak eskertzen diren, hartzeke daude oraindik sorkuntza lanek behar duten ordaina, lan baldintza eta halako gauza "itsusi" askori buruzko erabakiak.

Beka lortu duen lehena izateaz gain, aurreko 'Epizentroa' lanak ere arrakasta izan zuen. Sentitu al duzu presiorik? Horrek baldintzatu al du nolabait lan hau?

Baldintzatu ez nuke esango, edo behintzat ez dut horren kontzientziarik hartu. Eta presioa... ez dakit. Epe baten barruan lan egiteak presioa sortzen du eta aurreko liburuak arrakasta izateak ere eragiten duela uste dut. Baina kontua da idazten dudanean, bestela ere, halako presio moduko bat jartzen diodala neure buruari. Beharbada ez dut hitz hori erabiltzen, erronka edo zailtasuna baizik, baina beti hortik idazten dut, eta hor hartzen du zentzua idazteak. Zerbait berria idazten hasten naizen aldiro, nire barnean beti dago ahots bat etengabe "gai izango al naiz?" errepikatzen didana.

Helduentzako 'Zebra eta bideak' lanaz gain, beste bi liburu kaleratu dituzu aurten: 'AHT - Arrisku Handiko



Trena' gazte literaturan eta 'Miraren mendekua' haur literaturan. Urte oparoa izan dela esango zenuke?

Kontrakorik esango banu, ez lidake inork sinetsiko [irribarre artean]. Gaur lagun batek esan dit nire liburuak udazkeneko onddoak bezala agertzen zaizkiola bazter guztietatik. Kontua da azken hiru proiektu horien bukaerak elkartu egin direla, eta badirudi aurten sekulako produkzioa izan dudala. Baina kontuan hartu behar da, adibidez, *Zebra eta bideak* liburuak hiru urteko lanaren emaitza dela.

Gazteentzako 'AHT - Arrisku Handiko Trena' hirugarren eskapu liburuak duzu; halakoetan, irakurlea da protagonista eta bere esku dago istorioan gertatzen dena... Gustura genero horretan?

Liburu hauek idazten oso ondo pasatzen dut eta uste dut hori emaitzan ere nabaritzen dela. Gaztetan izugarri gustatzen zitzaizkidan halako liburuak, eta izaten ari diren harrera kontuan izanda (salmenta markak hausten ari dira, JUUL saria irabazi dute bi urtez jarraian...), garbi dago euskarazko literaturan hutsune bat zegoela hor. Oraingoan, hiru liburu egin ditut eta, halakoak idazten disfrutatzen dudan bitartean, jarraitzeko asmoa dut.

Eskapu liburuak da, hain justu, Xuhar semearekin elkarlanean ondu duzun 'Miraren mendekua' bera ere, baina azken hori haurrei zuzenduta dago.


Miraren mendekua liburuarekin Eskaputxiki bildumari eman diogu hasiera; lehen irakurleei dago zuzenduta (8 urtetik aurrerako haurrei). Orain arte idatzi ditudan eskapu liburuak 10 urtetik aurrerako irakurleentzat zeuden planteatuta. Halako liburuak izugarri gustatzen zaizkio Xuhar semeari, baina haserre zegoen bere kabuz irakurtzeko larregizkoak egiten zitzaizkiolako, gehiegi. Erronka jo zidan, eta jolas baten moduan hasi zena errealitate bihurtu da azkenean.

Eta idazle bezala, zer nolako abentura izan da liburuak semearekin batera osatzea?

Liburuak Zarauzko Garoa liburu-dendan aurkeztu genuenean, Xuharri galdetu zioten ea zer gustatu zitzaion gehien liburuak egitean, eta berak erantzun zuena esango dut, niretzat ere hala izan delako: lan honek aukera eman digula biok bakarrik elkarrekin denbora asko pasatzeko.

Idazleok beti izaten duzue idatzi edo proiekturen bat esku artean. Zer duzu orain buruan?

Buruan atzera eta aurrera darabilkidan guztia egiteko lau bizitza edo klonaziorako gaitasuna izan beharko nituzke. Momentuz, nire asmoa da Eskaputxiki bildumako bigarren liburuarekin jartzea eta eleberri bat izan daitekeenerako apunteak hartzea. Gero benetan zer egingo dudan... auskaldo!



Haur, gazte eta helduentzako 18 ekintza antolatu dituzte aurtengo Euskeraz Bagera zikloan



Debara ere iritsiko da Euskararen Eguneke ospakizunen eta aldarrikapenen oihartzuna, baina euskara ardatz duten ekitaldiak ez dira egun bakarrera mugatuko. Laugarren urtez jarraian, Euskeraz Bagera egitasmoa antolatu dute Zuhatza Euskara Elkarteak eta herriko hainbat eragilek elkarlanean. Egitaraua azaroaren 17an abiatu zen eta abenduaren 15ean amaituko da; bere baitan, aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izateko 18 ekintza izango dira.

Duela hiru urte, 2021ean, sortu zen Deban Euskeraz Bagera egitasmoa, aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izateko eta herritarron artean harreman sare berriak eraiki ahal izateko erronkarekin. Eta hasierako ezaugarriei eta helburuei eutsiko die laugarren edizio honetan ere.

Sustatzaileek azaldu bezala, herritarrei beren proposamenak egiteko eta ekimenean parte hartzeko gonbidapena egin zieten aurrez, eta, ondorioz, elkarlanaren fruitu izango da askotariko ekintzak barnebiltzen dituen egitaraua.

Zuhatza elkarteak, Debako Udalak eta hamarnaka norbanakok ez ezik, ondoko eragileek ere bat egingo dute aurtengo jardunaldiakin: Debako Gazte Asanblada, Deban Kanean Kantuz, Debadezine, Debako Kontalariak, Liburutegia Denontzat, Kultur Elkarteak, Iruleak

Emakume Pilotariak, Bakarrizketak Euskaraz, Iturri Ondoan korua, Zubi Guraso Elkarteak eta Goimek.

Parte hartzeko deia

Bete-betea dator Euskeraz Bagera programazioa, guztira 18 ekintza aurreikusten baitira hilabete inguru iraungo duen egitasmoan. Azaroaren 17an eta 20an egin zituzten lehenengo jarduerak, eta datozen egun eta asteotan ere adin guztietako herritarrei zuzendutako liburu aurkezpenak, umorezko bakarrizketak, kontzertuak, ipuin kontaketa saioak, antzerkia, kalejirak, zinema proiektzioak... izango dira (ondoko orrialdean ikus daiteke egitarau osoa).

Antolatzaileek elkarlana oinarri eta hizkuntza ardatz dituen egitasmoarekin bat egiteko eta jardueretan parte hartzeko deia egin diete herritarrei.



HURRENGO HITZORDUAK:

AZAROAK 22 (OSTIRALA)

UMOREZKO BAKARRIZKETAK
 20:00 'Barreteria'. Kultur Elkarte.
 Sarrera: 5€ - Internet bidezko salmenta:
labur.us/barreteriadeba2

AZAROAK 23 (LARUNBATA)

HERRIKO MUSIKARIEN KONTZERTU AKUSTIKOA
 20:00 Kultur Elkarte.

AZAROAK 27 (ASTEAZKENA)

LIBURU AURKEZPENA ETA TAILERRA
 17:00 'Koloretako intsektuak' (Maddi Astigarraga). Kultur Elkarteko liburutegia.

AZAROAK 29 (OSTIRALA)

UMEENTZAKO IPUIN KONTAKETA
 18:00 Gaztetxea.
KULTUREKIN
 20:00 Kontzertua: 'Aitor Huergo eta lagunak'. Kultur Elkarte.
 Sarrera: 5€ | Internet bidezko salmenta:
labur.us/aitorhuergokulturekin

ANTZERKIA

22:00 'Balbea' (Iñaki Ziarrusta, Atx Teatroa). Gaztetxea.
 Sarrera: 3€ (salmenta bertan).

AZAROAK 30 (LARUNBATA)

KALEJIRA
 12:00 Iturri Ondoan korua. Agirre jauregitik.

ABENDUAK 1 (IGANDEA)

FILM EMANALDIA
 19:00 'Black is beltza II: Ainhoa'. Kultur Elkarte.

ABENDUAK 3 (ASTEARTEA)

KALEJIRA
 19:00 Kalean Kantuz. Udaletxe azpiko arkupeetatik.

ABENDUAK 5 (OSTEGUNA)

UMOREZKO BAKARRIZKETAK
 19:00 'Blitz'. Kultur Elkarte. Sarrera: 10€
 Internet bidezko salmenta:
labur.us/blitzeuskerazbagera

ABENDUAK 8 (IGANDEA)

UMEENTZAKO IPUIN KONTAKETA
 17:00 Agirre jauregiko Ispiluen gela.

ABENDUAK 11 (ASTEAZKENA)

LIBURU AURKEZPENA
 18:30 'Aldaxka pozoituak' (Aritz Ibarra). Kultur Elkarte.

ABENDUAK 14 (LARUNBATA)

EUSKARAREN ALDEKO PILOTAKADA
 11:00 Aldats pilotalekua.

ABENDUAK 15 (IGANDEA)

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN AURKEZPENA
 12:00 Plaza Zaharra.

HAURRENTZAKO FILM EMANALDIA
 16:30 Kultur Elkarte.

Hainbat jarduera eta mobilizazio izango dira azaroaren 25aren bueltan Deban eta Itziarren



Iaz Itziarren egindako mobilizazioa. ITZIARCO ERASOEN AURKAKO TALDEA

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta, horren harira, beste urte batez, ekintza eta mobilizazio ezberdinak antolatuta dituzte Deban nahiz Itziarren.

Deban, adibidez, udalak QR kode bidezko ginkana bat antolatu du 12 urtetik gorako gazteentzat; ekimenari azaroaren 19an eman zioten hasiera, eta hilaren 26ra arte egongo da abian. Gainera, *Brigada Callejera: Chiapaseko*

sexu-langileen borroka dokumentala proiektatu zuten azaroaren 21ean. Eta, Debako Udalak antolatutako egitarauari amaiera emateko, azaroaren 28an "haur literaturak berdintasunaren alde duen papera" aztertzen duen *Sustraietatik eraldatu* dokumentala aurkeztuko dute Kultur Elkartean (18:00etan); ondoren, solasaldia egongo da Parean Elkartearen eskutik.

Bestalde, DIT Feministak elkarretaratzea deitu du azaroaren 25erako; *Ez bazara konponbidea, arazoa zara* lelopean egongo den aldarrikapen mobilizazioa Foruen Plazan izango da, 19:00etan.

Hiru hitzordu Itziarren

Itziarren, berriz, hiru jarduera antolatu ditu Itziaroko Erasoen Aurkako Taldeak, Itziaroko Auzo Udalaren babesarekin. Iragarri dutenez, LHko umeentzat Sketch Sorkuntza izango da Zabalsoro frontoian azaroaren 23an (12:00etan). Izen ematea: 644 71 6793.

Hilaren 24an, berriz, *Itziarren ba al dago genero indarkeria?* emanaldia izango da, Andutz Euskal Dantza Taldearekin batera, Burugorri gainean, 18:00etan. Eta azaroaren 25ean manifestazioa egongo dute, Zabalsoro frontoitik 18:00etan abiatuta.

Bigarren eskuko azoka antolatu dute Luzaroko LH6ko ikasleek

Luzaro ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak jada hasita daude ikasturte amaieran Lizarrara egin nahi duten ikasbidaia antolatzen. Irteera finantzatzeko helburuarekin, adibidez, bigarren eskuko azoka bat prestatu dute; azaroaren 29an izango da, 16:30etik 20:00etara, udaletxe azpiko arkupeetan.

Ikasleek azaldu dutenez, egoera onean dauden baina erabiltzen ez dituzten askotariko produktuak jarriko dituzte salgai postuan. Gainera, oihalezko poltsak erosteko aukera egongo dela ere gaineratu dute: "Postuan saldu nahi ditugun poltsa horiek etxetik ekarri ditugun kotoizko izara zuriekin prestatu ditugu".

Materiala prezio "justu eta egokian" salduko dutela nabarmendu dute ikasleek; objektu merkeenak euro baten truke erosi ahal izango dira, eta garestienak 20 euroren truke, gehienez. "Helburua material horri bigarren bizitza bat ematea da eta, aldi berean, ikasbidaia ordaintzeko dirua lortu nahi dugu. Horrela,



gure gurasoek ez dute ezer ordaindu beharrik izango, eta dirua gure esfortzuaren truke eskuratuko dugu", azaldu dute.

Herritar guztiak gonbidatu dituzte postura gerturatzera. "Materiala biltzeko ahalegin handia egin dugu eta ilusio handiz prestatu dugu azoka. Beraz, animatu eta etorri!", erantsi dute.

Omenaldi beroa egin diote Amagoia Arrieta kirolariari



Espainiako selekzioarekin Parisko Paraolinpiar Jokoetan seigarren postua lortu duen Boccia kirolariak jaso zuen azaroaren 16an. Debako Udalaren ekimenez egin zen aitortza ekitaldia, herritarren, musika bandaren eta kirol elkarteetako ordezkarien laguntzarekin.

Omendua kalejiran iritsi zen Foruen Plazara, bandak lagunduta, eta kirol elkarteetako kideek ohorezko pasilloa egin zioten bertan, herritarren txalo zaparrada

artean. Ondoren, udaletxeko areto nagusira igo zen Arrieta, etxekoez eta lagunez, udal ordezkarienez eta hainbat herritarrez inguratuta.

Bertan, udalerrian bizi den kirolariaren ibilbidea eta lorpenak azpimarratu zituen Alazne Txurruka alkateak, maila horretara iristeko egin duen "lana eta esfortzua" nabarmenduz. Eta, jarraian, txapela jantzi eta lore sorta bat oparitu zion hunkituta eta eskertuta azaldu zen Arrietari. Ekitaldia German Urteagaren bertsoekin amaitu zen.

Deban jokatu dira erkidegoetako saskibalo selekzioen lagunartekoak

Autonomia erkidegoetako selekzioen Espainiako txapelketa prestatze aldera, Euskadiko, Asturiasko, Galiziako eta Gaztela eta Leongo saskibalo selekzioetako taldeek lagunarteko partidak jokatu dituzte Deban.

Debasket Saskibalo Klubeko kideek azaldu bezala, abenduaren 7an eta 8an haur mailako emakumeen selekzioen arteko hainbat norgehiagoka ikusteko aukera izango da Debako kiroldegian. Hortaz, bertaratzeko eta harmailak betetzeko gonbidapena egin diete zale eta herritar guztiei.

Sei norgehiagoka

Jakinarazi dutenez, selekzioen arteko sei neurketa izango dira kiroldegiko kantxan. "Denek denek aurka jokatuko dute. Bi partida izango dira larunbat goizean, eta beste bi arratsaldean. Igandean, berriz, beste bi lagunarteko ikusteko aukera egongo da".

Antolatzaileek azaldu dutenez, gainerako xehetasunak aurrerago zehaztuko dituzte.

Bitor Garitaonandia onenen artean ibili da jokatu dituen azken bi surf txapelketetan

Azaroan jokatu dituen azken bi norgehiagoketan emaitza onak lortu ditu Bitor Garitaonandia surfariak.

Batetik, brontzezko domina eskuratu zuen hilaren 8tik 10era Las Palmasen (Kanaria Handia) egin zen Open LPA Surf City txapelketan. Helburuak beteta, gustura azaldu da kirolaria. "Momentu hauetan, Europako

zirkuitua daukat jomugan, eta helburua munduko zirkuiturako sailkatzea da. Txapelketa honetara etorrira, zirkuituak eskatzen duen erritmoari eutsi eta surfean ur berotan aritzeko aukera izan dut".

Bestetik, surfari debarra laugarren sailkatu zen astebete beranduago Tenerifen jokatuako Open Punta Blanca txapelketan.



Argiaren faktura aztergai

ETXEKO FAKTURA ELEKTRIKOA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Azken urteetan, etxeko faktura elektrikoak aldatetak jasan ditu eta gaur egun dokumentu konplexu eta ulergaitza bihurtu da herritar askorentzat.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundearen arabera, kontsumitzaileen %11k soilik ulertzen du. Izan ere, fakturan hainbat kontzeptu aipatzen dira, baina hauek ulertzeko oinarrizko ezagutza tekniko batzuk izan behar dira. Ondorengo artikuluan, etxeko faktura elektrikoak ulertzeko gakoak izango ditugu hizpide.

Kontratutako potentzia eta energia kontsumoa

Kontratutako potentziak aldi berean martxan jarri ditzakezun aparatu elektrikoaren kantitatea mugatzen du; kilowatt (kW) da bere unitatea. Kontsumitutako energiak, berriz, erabilitako energia kantitatea zehazten du eta kilowatt-ordua (kWh) da bere unitatea. Ordu-tegi-tarifak edo erabilera-denboraren tarifak eguneko orduaren arabera aldatzen dira. Momenturik garestiena goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartekoa izan ohi da. Edonola ere, badira kontratuak eguneko ordu guztietarako tarifa bera eskaintzen dutenak.

Merkatu erregulatua eta librea
Elektrizitatearen sektorean bi merkatu mota daude,



erregulatua eta librea, eta kontsumitzaileak kontratatzeke momentuan, bi merkatu horien artean aukera dezake. Argiaren merkatu erregulatua Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa eskaintzen du (PVPC). Tarifa honek merkatu elektrikoak araututako eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gainbegiraturako prezioak eskaintzen ditu. Merkatu librean, berriz, argia, gasa eta mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa ugari daude, eta beraiek markatzen dituzte prezioak.

**KONTSUMITZAILEEN
ERAKUNDEAREN
ARABERA, %11K SOILIK
ULERTZEN DU
ARGIAREN FAKTURA**

Faktura murrizteko neurriak

Faktura murriztu nahi baduzu, ondorengo gomendio hauek har ditzakezu kontuan: etxetresna elektriko eraginkorrak erabiltzea (A etiketadunak); kargagailuak eta behar ez dituzun ekipoa deskonektatzea; argi naturala aprobetxatzea; berokuntzaren eta aire girotuaren erabilera erregulatzea; eta potentzia optimizatzea.



energia.debegesa.eus
agenda2030@debegesa.eus
943 82 01 10.

Fakturaren atalak

Kontratuaren eta titularraren datuak

Fakturazio datuak

Kostuen laburpena eta guztira

KOSTUEN LABURPENA

- Kontsumitutako energia
- Potentzia
- Zergak
- Zerbitzuak
- BEZ

Potentzia

Energia terminoa

Bono soziala

Zerga

Zerbitzuak

BEZ

Horniduraren bestelako informazioa

HORNIDURAREN BESTELAKO INFORMAZIOA

CUPS: Hornidura-puntuaren kode bateratua argi eta garbi identifikatzen du instalazioa.




KONTRATUAREN ETA TITULARRAREN DATUAK

- Titularra
- Horniduraren helbidea
- Kontratututako potentzia
- Kontratu zenbakia
- Kontratuaren amaiera data

FAKTURAZIO DATUAK

- Faktura zenbakia
- Fakturazio periodoa
- Fakturatutako egunak
- Emisio data
- Epe muga
- Kobratze data
- Kontu korrontea



BONU SOZIALA

Bonu sozial elektrikoa baliabide gutxiko familiei laguntzeko neurria da, energia merkeago saltzen baitaie. Gaur egun, energiaren sektoreko enpresa guztiek (banatzaileek, ekozileek eta merkaturatzaileek) ordaindu behar dute; beraz, kontzeptu hori fakturretan kontzeptu gisa sartu da edo tarifetan txertatu da.

ZERBITZUAK

Kontagailuaren alokairua da behar den zerbitzu bakarra, eta kontagailurik jabetzan ez dagoenean agertzen da. Prezio arautua du.

Merkatu librean ohikoa da beste zerbitzu batzuk kontratatzea; betetan beharrezkoa den baloratzen du, eta behar ez badu, baja eskatzen du, kosturik gabe noiz egin daitekeen berrikusi ondoren.

Azaroa / Abendua

AZA. 17-ABE. 15

EUSKERAZ BAGERA

Xehetasun guztiak ale honetako 26-27. orrialdeetan.

AZA. 19-26

A25 QR GINKANA

12 urtetik gorakoentzako pista jolasa. Informazioa: deba.eus.

AZA. 23 (LARUNBATA)

SANTA ZEZILIA

12:30 Debako Musika Bandaren kontzertua. Eliza.
13:30 Aitzuri abesbatzaren emanaldia kalez kale.

ORGANO KONTZERTUA

20:00 Loreto Aramendi. Eliza.

KARROPOTEOA

20:00 Debako Gazte Asanbladak antolatuta. Herriko kaleetan.

KONTZERTUA

22:30 'Guri 5' eta 'Dj Marti'. Gaztetxea.

AZA. 24 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

08:30 Iturriotz-Hernio-Goiaz. Estalitako pasealekua.

ZINEMA

19:00 'Rivales'. Kultur Elkarte.

AZA. 25 (ASTELEHENA)

A25 MOBILIZAZIOAK

Xehetasun guztiak ale honetako 28. orrialdean.

AZA. 26 (ASTEARTEA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 Gidaria: Ainhoa Aldazabal. Udal liburutegia.

AZA. 27 (ASTEAZKENA)

ERRIGORA BANAKETA

11:00-13:00 / 17:00-19:00 Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoa (Ifar kalea 12, behea).

IRAKURKETA KLUBA

19:00 Gidaria: Asier Serrano. Udal liburutegia.

AZA. 28 (OSTEGUNA)

ARBILEN TXANGOIA

08:30 Cartuja de Miraflores (Burgos), autobusez (zumardia).

DOKUMENTALA

18:00 'Sustraietatik eraldatuz. Haur literatura berdintasunaren aldeko aliatu'. Kultur Elkarte.

AZA. 29 (OSTIRALA)

6. MAILAKO IKASLEEN

AZOKA
16:30 Udaletxeko arkupeak.

AZA. 30 (LARUNBATA)

BAZKARIA

14:30 DGako kide eta kide ohientzat. Gaztetxea.

ABE. 1 (IGANDEA)

ODOL EMAILE HANDIEI

OMENALDIA
12:00 Agirre jauregia.

MURAL MARGOKETA

19:00 Gaztetxea.

ABE. 2 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN

MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

ABE. 8 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'Fallen leaves'. Kultur Elkarte.

ABE. 11 (ASTEAZKENA)

LOARI BURUZKO TAILERRA

11:00 Arbil Elkarte Soziala. Izen-ematea: bulego orduetan.

ABE. 13 (OSTIRALA)

KULTUREKIN

20:00 Kontzertu akustikoa: Idoia Asurmendi. Kultur Elkarte.

ABE. 14 (LARUNBATA)

GABONETAKO AZOKA

Herriko ekoizleen postuak. Simon Berasaluze plaza.

ABE. 15 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'La trenza'. Kultur Elkarte.

ABE. 16 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN

MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

ABE. 19 (OSTEGUNA)

GABON KONTZERTUA

17:00 Musika eskolako ikasleen emanaldia. Eliza.

LEHIAKETAK

Gabonetako balkoi, leiho eta fatxaden II. lehiaketa

Izen-ematea: abenduaren 2tik 23ra arte, turismo bulegoan.

XIX. Tene Mujika beka

Aurkezteko epea: abenduak 9. Oinarriak: deba.eus.

DENDA SOLIDARIOA

Kooperazio Taldea

Abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra arte Portu kaleko lokalean.



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA

Azaroak 25, 26, 27, 28 / Abenduak 13, 14, 15.

ZALDUEGI

Azaroak 29, 30 / Abenduak 1, 9, 10, 11, 12.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI

Azaroak 23 eta 30

BURGOA

Abenduak 7 eta 14

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus
Zuhatza Euskara Elkarte

HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarte	943 19 13 83	Lurraldeburu	900 30 03 40
Debako Udala	943 19 28 40	Correos	943 19 17 99
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Itziarko Botikina	687 75 67 21
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90
Kiroldegia	943 19 22 62	Gurutze Gorria	943 19 10 32
Euskotren	944 33 33 33	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22



Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.




**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

ASESORIA ARIN

M. Belen Arrue Lizarralde
Abokatua

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza
Enpresak / Autonomoak
Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa

asesoriarin@asesoriarin.com

Zestoa
Gesalaga kalea, 22 behea
943 89 70 99

Zumaia
P. Etxezarreta, 15 behea
943 11 71 55



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 PK.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k


kutxabank



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)




SUJIKO

Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbakien baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

Erantzuna:







HARTU PARTE
DANOBATGROUPEN
EUSKARAREN EGUNA
OSPATZEKO LEHIAKETAN

Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta **irabazi bi pertsonentzako bazkaria Belaustegi Baserrian.**

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA > 2024ko abenduak 3 00:00h

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2024.html



DANOBATGROUP | DANOBAT | GOIMEK | IDEKO | SORALUCE





www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



*Hondartza ondoan
Urte gustian zabalik*

Nafarroa Plaza - Tel.: 943 192 576
20820 DEBA



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola

ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar

943 20 72 17 | 660 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3

943 192 057

20820 DEBA

Calbeton



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Ikasi
ingelese
atzerrian

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net

EUSKERAZ BAGERA

Deba 2024

AZAROAK 22 ostirala

20:00 | **Barretegia. Umorezko bakarriketak** Kultur Elkartean
Sarrera 5€ | Salmenta: www.labur.eus/barretegiadeba2

AZAROAK 23 larunbata

20:00 | **Herriko musikarien kontzertu akustikoa: Euskeraz bagera!**
Kultur Elkartean | Doan

AZAROAK 27 asteazkena

17:00 | **'Koloretako intsektuak' (Maddi Astigarraga)**
liburuaren aurkezpena eta haurrentzako tailerra
Kultur Elkarteko liburutegian | Gomendatutako adina: +6 urte

AZAROAK 29 ostirala

18:00 | **Umeentzako ipuin kontaketa** Gaztetxean
20:00 | **KulturEkin kontzertua: Aitor Huergo eta lagunak**
Kultur Elkartean | Sarrera 5€
Salmenta: www.labur.eus/aitorhuergokulturekin
22:00 | **Antzerkia: 'Balbea' (Iñaki Ziarrusta)** Gaztetxean
Sarrera 3€ (salmenta bertan)

AZAROAK 30 larunbata

12:00 | **Iturri Ondoan koruaren kalejira** Agirre jauregitik hasita

ABENDUAK 1 igandea

19:00 | **Film emanaldia: 'Black is beltza II: Ainhoa'** Kultur Elkartean

ABENDUAK 3 asteartea | Euskararen Nazioarteko Eguna

19:00 | **Kalean Kantuz** udaletxe azpiko arkupeetatik hasita

ABENDUAK 5 osteguna

20:00 | **'Blitz' umorezko bakarriketak** Kultur Elkartean
Sarrera 10€ | Salmenta: www.labur.eus/blitzeuskerazbagera

ABENDUAK 8 igandea

17:00 | **Umeentzako ipuin kontaketa** Agirre jauregiko Ispiluen gelan

ABENDUAK 11 asteazkena

18:30 | **'Aldaxka pozoituak' (Aritz Ibarra)**
eleberri grafikoaren aurkezpena Kultur Elkartean

ABENDUAK 14 larunbata

11:00 | **Euskararen aldeko pilotakada** Aldats pilotalekuan

ABENDUAK 15 igandea

12:00 | **Euskararen plan estrategikoaren aurkezpena**
Plaza Zaharrean (eguraldi txarrarekin udaletxeko pleno aretoan)
16:30 | **Haurrentzako film emanaldia** Kultur Elkartean